

Orain, irakur itzazu ipuinen hasierei eta amaierari buruzko argibide hauek.

AZALPENA

IPUINAREN HASIERAK

- **Duela denbora asko**, leku eder bat zegoen, baina tristea eta grisa ere bai.
- **Aspaldi-aspaldian**, leku eder bat zegoen, baina tristea eta grisa ere bai.
- **Orain dela urte asko**, leku eder bat zegoen, baina tristea eta grisa ere bai.
- **Bazen behin** leku eder bat, baina tristea eta grisa **zena**.
- **Behin bazen** leku eder bat, baina tristea eta grisa **zena**.
- **Munduan asko bezalaxe**, **bazen** leku eder bat, baina tristea eta grisa **zena**.
- **Landareek eta animaliek hizketan zekiten garaian**, bazen leku eder bat, (...) grisa **zena**.

IPUINAREN AMAIERAK

- 1.- Horrela, kolorez bete zen herria. Inoiz ez zaie ahaztuko une hura. **Eta hala izan bazan, sar dadila kalabazan.**
- 2.- Horrela, kolorez bete zen herria. Inoiz ez zaie ahaztuko une hura. **Eta hala izan bazan, sar dadila kalabazan, eta ager dadila Gasteizko plazan.**
- 3.- Horrela, kolorez bete zen herria. Inoiz ez zaie ahaztuko une hura. **Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Gasteizko plazan.**
- 4.- Horrela, kolorez bete zen herria. Inoiz ez zaie ahaztuko une hura. **Haiek ondo bizi baziren, gu ondo/hobeto bizi gaitezen.**
- 5.- Horrela, kolorez bete zen herria. Inoiz ez zaie ahaztuko une hura. **Egia bada, sakelan sar, eta gezurra bada, kontuan ez har.**
- 6.- Horrela, kolorez bete zen herria. Inoiz ez zaie ahaztuko une hura. **Egia bada sinets, eta ez bada, ez sinets.**



3. jarduera: Jarduera baten bitartez, aurreko fasean atzemandako baliabide horiek guztiak batera eta elkarlanean landu.

Ipuin koloretsuak

Eginkizuna gauzatzeko ordua heldu da. Hasteko, gogora ezazu zein den zure lana: **Gasteizko IKAK antolatu duen “Koloreak” izeneko ipuin laburren lehiaketan parte hartzea.** Horretarako, irakur ezazu ondoko fitxa hau, ipuina idazten lagunduko dizu-eta.

- 1.- Ipuina idazteko, nahi duzun bidea hartu ahal duzu. Gogora ezazu lehiaketak **KOLOREAK** dituela gai nagusia.
- 2.- Lehenik eta behin, ipuinen egitura klasikoa gogoan hartuta, osa ezazu ondoko taula hau:

IZENBURUA: _____

HASIERAKO EGOERA		
KORAPILOA	ARAZOA	
	EKINTZAK	
	KONPONBI DEA	
BUKAERAKO EGOERA		

3.- Ipuinaren egituraz gain, gogora ezazu ipuinari hasiera eta bukaera emateko zein baliabide ikusi dugun eginkizunean.

4.- Ipuina, azken batean, **narrazio-mota** bat da. Kontuan har itzazu narrazioan erabili ahal diren **BALIABIDE HAUEK**:

- **lekuen zein pertsonaien deskripzioa egiteko baliabideak:** onomatopeiak, esaera zaharrak, errepikapenak...
- **gertaeren segida ordenatzeko baliabideak:** *aurreko egunean; biharamunean; egun berean; handik gutxira; handik bi egunera; jarraian; goiz batean; hurrengo egunetan; harako bidean nindoala; hasieran; geroago; handik bost minutura; hurrengo egunean....*
- **kontaketaren erritmoa aldatzeko baliabideak:** *berehala, bat-batean, orduan, ez bat eta ez bi...*